AZKEN ERABAKIA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

**1787**

Ekainaren 29ko 11/1988 LEGEA, Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundea sortzezkoa.

Eusko Legebiltzarrak, Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundea sortzezko ekainaren 29ko 11/1988 Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei. Beraz, men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet Euskadiko herritar guztiei, norbanako zein agintariei.

Gasteiz, 1988.eko uztailak 19.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Zioen adierazpena

Euskal Herriko Autonomia-Elkarteak, Autonomia-Estatutuko 10.36 atalean esaten denez, Kirol-alorrean bakarreango agintepidea du.

Halaber, Autonomia-Estatutuko 16. atalean erabakitzen denez, «irakaskuntza, zabalera, maila, gradu era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate-Autonomoaren konpetentziapean dago».

Bestalde, Soin-Hezkuntzak hezkuntza-maila ezberdinetan duen garrantzia eta egiten ari den gorakoaren garrantzia gero eta nabarmenagoa denez, Soin-Hezkuntzako Erakundea eratzen da, Kultura eta Turismo-Sailari atxikiriko, arduralaritza-mailako ihadutze-erakunde burujabe gisa, eta Soin-Hezkuntzako titulodunak gaitzea, berariz gaitzea eta trebatzea, ikerlaritza suztatzea, eta kirol-teknikarien gaikuntzan diharduten beste izaikiekin batera lankide izatea izango ditu bere egiteko.

Bigarren Izenburuan, bestalde, Erakundearen ihardutze-sailak finkatzen dira: Zuzendaritzako Zaingo-Batzordea, Irakasle-Batzarra eta Soin-Hezkuntzako Erakundeko Artezkaria.

Hirugarren Izenburuan, Erakundeak bere helburuak betetzeko eta egiteratzeko izango dituen diruzko eskuarteak finkatzen dira.

I IZENBURUA.
SOIN-HEZKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN LEGEZKO JAURPIDEA

*1. atala.*– Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundea eratzen da, Kultura eta Turismo-Salari atxikiriko, arduralaritza-mailako ihardutze-erakunde burujabe gisa; berenezko lege-nortasuna eta bere helburuak betetzeko ihardutzeko ahalmen osoa duela.

Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundearen egoitza Vitoria-Gasteizen kokatuko da.

*2. atala.*– 1. Honako helburu hauek izango ditu Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundeak:

a) Soin-Hezkuntzako tituloaren jabe izateko behar diren jakintzak irakatsi eta gaikuntza ematea, hala

DISPOSICION FINAL

La presente Ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**1787**

LEY 11/1988, de 29 de Junio, de creación del Instituto Vasco de Educación Física.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi, que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 11/1988, de 29 de Junio, de creación del Instituto Vasco de Educación Física. Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de julio de 1988.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Exposición de motivos

La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene, a tenor del artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía, la competencia exclusiva en materia de deporte.

Asimismo, el Estatuto de Autonomía en su artículo 16 determina, que es competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades.

Por otro lado, al ser cada día más evidente la singular trascendencia y auge que tiene la educación física en los diferentes niveles educativos, se constituye el Instituto Vasco de Educación Física como organismo autónomo, de carácter administrativo, adscrito al Departamento de Cultura y Turismo, asignándole funciones destinadas a la formación, especialización y perfeccionamiento de titulados en educación física, al fomento de la investigación, y colaboración con otros entes que incidan en la formación de técnicos deportivos.

Por su parte el Título segundo establece los órganos del Instituto que son: Patronato Rector, Claustro de Profesores y el Director del Instituto Vasco de Educación Física.

En el Título tercero se determinan los recursos económicos con que contará el Instituto para el cumplimiento y realización de sus fines.

TITULO I.
REGIMEN JURIDICO DEL INSTITUTO VASCO DE EDUCACION FISICA

*Artículo 1.*– El Instituto Vasco de Educación Física se constituye en organismo autónomo de carácter administrativo adscrito al Departamento de Cultura y Turismo, con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines.

La sede del Instituto Vasco de Educación Física radicará en Vitoria-Gasteiz.

*Artículo 2.*– 1. Serán fines del Instituto Vasco de Educación Física:

a) Impartir los conocimientos y la formación para la adquisición de titularidad académica en educación

behar izanez gero, indarrean dauden legeen arauera, hirugarren sailekoak barne. Irakaskuntzak, Euskeraren Erabilera Normaltzeko Oinarrizko 10/82 Legearen arauera, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko bi hizkuntza ofizialetan emango dira.

b) Soin-Hezkuntzako titulodunak hobetzea eta berariz gaitzea.

c) OHO-eko irakasleak Soin-Hezkuntzan hobetzea eta berariz gaitzea.

d) Soin-Hezkuntzaren alorreko zientzia-ikerkuntza, horretarako beste ihardutze-erakundeekin ituneak egin ahal izango dituela.

e) Bere baliapide eta antolapideen eraentza eta horiei onean eustea.

f) Kirol-teknikarien gaikuntzan diharduten beste ikastegiekin lankide izatea.

2. Helburu horiek aurrera eramateko, Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundeak ikastaroak eta mintegiak antolatu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailarekin antolakidetza-moduak eratu, baita indarrean dauden legeei atxikizko azterlan-egitamuak gertatu ere, ahal izango ditu.

## II IZENBURUA. SOIN-HEZKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN JAURGORAKO SAILAK

*3. atala.*– Honako hauek izango dira Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundearen Jaurtze-sailak:

a) Bateangoak: Zaingo-Batzordea eta Irakasle-Batzarra.

b) Lagun bakarreko Sailak: Zuzendaria.

*4. atala.*– Zuzendaritzako Zaingo-Batzordea honako kideok osatuko dute:

Lehendakari: Kultura eta Turismo-Sailburua.

Lehendakariorde: Gazteria eta Kiroletarako Sailburuordea.

Batzordekideak:

– Kultura eta Turismo-Saileko Kirol-Artezkaria.

– Autonomia-Elkartea osatzen duten Kondaira-Lurraldeetako Foru-Diputazioetako bakoitzeko Kultura-Diputatuak.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Saileko bi ordezkari.

– Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte-Kontseiluko ordezkari bat.

– Zuzendaritzako Zaingo-Batzordeko Lehendakariak Soin-Hezkuntzan eta Kirol-alorrean ospe haundiko diren lagunen artetik aukeratutako bi ordezkari.

– Erakundeko Irakasle-Batzarreko bi ordezkari.

– Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundeko ikasleen bi ordezkari.

– Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundeko Zuzendaria.

– Kultura eta Turismo-Saileko teknikari bat; honek, hizpidea bai, baina boto-eskubiderik gabe, Idazkaritza-lanak egingo ditu.

física, incluido, en su caso, el tercer ciclo, conforme a la legislación vigente. La enseñanza será impartida en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de acuerdo con la Ley 10/82, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

b) El perfeccionamiento y especialización de los titulados en educación física.

c) El perfeccionamiento y especialización de los profesores de E.G.B. en educación física.

d) La investigación científica en el campo de la educación física, para lo cual podrá establecer convenios con otros organismos.

e) La gestión y mantenimiento de sus recursos e instalaciones.

f) Colaboración con otros centros dedicados a la formación de técnicos en deporte.

2. Para el desarrollo de sus fines, el Instituto Vasco de Educación Física podrá organizar cursos y seminarios, establecer mecanismos de coordinación con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, así como elaborar planes de estudio conforme a la legislación vigente.

## TITULO II. ORGANOS DE GOBIERNO DEL INSTITUTO VASCO DE EDUCACION FISICA

*Artículo 3.*– Los órganos de gobierno del Instituto Vasco de Educación Física serán los siguientes:

a) Colegiados: El Patronato y el Claustro de Profesores.

b) Organos unipersonales: El Director.

*Artículo 4.*– El Patronato Rector estará integrado por los siguientes miembros:

Presidente: El Consejero del Departamento de Cultura y Turismo.

Vicepresidente: El Viceconsejero de Juventud y Deportes.

Vocales:

– El Director de Deportes del Departamento de Cultura y Turismo.

– Los Diputados de Cultura de cada una de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos integrados en la Comunidad Autónoma.

– Dos representantes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

– Un representante del Consejo Social de la Universidad del País Vasco.

– Dos representantes nombrados por el Presidente del Patronato Rector, entre personas de reconocido prestigio en el campo de la educación física y el deporte.

– Dos representantes del Claustro de profesores del Instituto.

– Un representante de los alumnos del Instituto Vasco de Educación Física.

– El Director del Instituto Vasco de Educación Física.

– Un técnico del Departamento de Cultura y Turismo, que actuará como Secretario, con voz y sin voto.

*5. atala.*– Zuzendaritzako Zaingo-Batzordeko Lehendakariari dagokio Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundearen ordezkotza ofiziala, horrek esku emanez, edo horren ezean edo ezinean, ordezko gisa Lehendakariordeak izan dezakeela.

*6. atala.*– Honako hauek izango dira Zuzendaritzako Zaingo-Batzordearen berenezko egitekoak:

– 3. atalean esandako helburuak betetzeko ardura izatea.

– Zuzendariak aurkeztuko duen Barne-Jaurpiderako Araudia onartzea.

– Erakundearen ihardunerako Urteko Egitamua onartzea.

– Jaurlaritzara bidaltzeko, urteko Aurrekontuen egitasmotarakoa onartzea.

– Erakundearen eraenpideari eta ekintzei buruzko urteko argipide-txostena onartzea.

– Erakundeari datxezkon ondasun eta baltzen ardura eta eraenpidea.

– Lege eta araudietan izenda dakizkiokeen beste guztiak.

*7. atala.*– Erakundeko Irakasle-Batzarra, Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundeko Zuzendariaren artezkaritzapean, irakasle guztiek osatuko dute. Horren antolakuntza eta ihardunbidea araudi-bidez onduko dira.

*8. atala.*– Irakasle-Batzarrak Zuzendaritzako Zaingo-Batzordeari eta Erakundeko Zuzendariari aholkuak eman eta irakaspidetza eta pedagojia-alorrean komenigarritzat eritzitako saloak egingo dizkie eta, halaber, Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundeko mailaz-mailako arauek bere esku utzi diezazkioten beste egiteko guztietan arituko da.

*9. atala.*– Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundeko Zuzendaria, Kultura eta Turismo-Sailburuaren saloz eta Zuzendaritzako Zaingo-Batzordeari entzun ondoren, Jaurlaritzako Dekretoz izendatuko da.

Kargu horrek, Jaurlaritzaren Legean esaten denari jarraiki, Lanarigoaren Araudian Zuzendari-mailarako esaten dena izango du jaurpide.

*10. atala.*– Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundeko Zuzendariak honako egiteko hauek izango ditu:

– Zuzendaritzako Zaingo-Batzordearen erabakiak eta ebazpenak egiteratzea.

– Zuzendaritzako Zaingo-Batzordeari aldika eta horrek eska dezan guztietan, Erakundearen aribidearen berri ematea.

– Erakundeko urteko altzinak emanezko argipide-txostena gertatzea.

– Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundearen urte osorako diruegitamutarakoa gertatzea.

– Erakundeko irakaskuntzaren eta arduralaritzaren artezkaritza bere gain hartzea.

– Lanarien burugoa izatea.

– Urtean-urtean eginbideratu beharreko ekintza-egitasmoa Zuzendaritzako Zaingo-Batzordeari aurkeztea.

– Irakasle-Batzarraren bilkuretako buru izatea.

– Legeek eta araudiek eman diezazkioten beste egiteko guztiak.

*Artículo 5.*– Al Presidente del Patronato Rector le corresponde la representación oficial del Instituto Vasco de Educación Física, así como la facultad de firmar todo tipo de actos y contratos, pudiendo por delegación, ausencia o imposibilidad ser sustituido por el Vicepresidente.

*Artículo 6.*– Serán funciones propias del Patronato Rector, las siguientes:

– Velar por el cumplimiento de los fines establecidos en el artículo 3.

– Aprobar el Reglamento de Régimen Interno, que será propuesto por el Director.

– Aprobar el Plan Anual de actuación del Instituto.

– Aprobar el anteproyecto de presupuesto anual para elevarlo al Gobierno.

– Aprobación de la memoria anual sobre la gestión y actuación del Instituto.

– La administración y gestión de los bienes y fondos adscritos al Instituto.

– Cualquier otras que se le asignen en las leyes y reglamentos.

*Artículo 7.*– El Claustro de Profesores del Instituto estará formado, bajo la dirección del Director del Instituto Vasco de Educación Física, por todo el personal docente. Su organización y funcionamiento se desarrollarán reglamentariamente.

*Artículo 8.*– El Claustro de Profesores asesorará y elevará las propuestas que estime convenientes en materias académicas y pedagógicas al Patronato Rector y al Director del Instituto y, asimismo, ejercerá cualesquiera otras funciones que le sean encomendadas por las normas orgánicas del Instituto Vasco de Educación Física.

*Artículo 9.*– El Director del Instituto Vasco de Educación Física será nombrado por Decreto de Gobierno, a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo y oído el Patronato Rector.

Dicho cargo se regirá por el Estatuto de Personal correspondiente a la categoría de Director, de conformidad con lo establecido en la Ley de Gobierno.

*Artículo 10.*– El Director del Instituto Vasco de Educación Física ejercerá las funciones siguientes:

– Ejecutar los acuerdos y resoluciones del Patronato Rector.

– Informar al Patronato Rector periódicamente y siempre que sea requerido por el mismo de la marcha del Instituto.

– Elaborar la memoria anual del Instituto.

– Elaborar el anteproyecto del presupuesto anual del IVEF.

– Asumir la dirección académica y administrativa del Instituto.

– Ejercer la dirección de personal.

– Presentar al Patronato Rector, el proyecto de actividades a desarrollar anualmente.

– Presidir las reuniones del Claustro de Profesores.

– Cualesquiera otras funciones que le atribuyan las leyes y reglamentos.

III IZENBURUA.
DIRUZKO BALIAPIDEAK

*11. atala.*– Honako hauek dira Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundearen diruzko eskuarte:

– Euskal Autonomia-Elkarteko Diruegitamu Nagusietan izendatu dakizkion baltzak.

– Izen-emate, tituloak, diplomak, ikasketa-agiriak emateagatikako eskubideak eta zerbitzu egiteagatikako beste eskubide guztiak.

– Erakundearen ondarea osatzen duten ondasun eta balioak.

– Ondasun horietatikako ekoizki eta irabaziak.

– Erakundea berari dagokion eremuan arituz, bere ekintzetatik sor daitezkeen diru-eskuraketak.

– Foru-Diputaziock, Udalek edo herri nahiz norbanako-alorreko erakundeek erabaki ditzaten diruzko eskuarteak.

– Legez eman dakizkion diru-laguntzak.

–Jaso ditzan era guztietako emaitzak, baita eman dakizkion hil-ondare, hilburuko emaitza eta sariak ere.

GEHIGARRIZKO ERABAKIETATIK LEHENENGOA

Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundea Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzea lehiaraziko du Eusko Jaurlaritzak.

GEHIGARRIZKO ERABAKIETATIK BIGARRENA

Soin-Hezkuntzako Euskal Erakundea Unibertsitateari atxiki dakion unean, Unibertsitate horrekin izenpetu beharreko itunean zehaztuta egon daitezen edozein eratako baldintza guztiak beteko ditu Jaurlaritzak.

GEHIGARRIZKO ERABAKIETATIK HIRUGARRENA

Zuzendaritzako Zaingo-Batzordearen Barne-Jaurpiderako Araudia onar ez dadin bitartean, Zaingo-Batzordea bere ihardunbide eta erabakiak hartzeko erarekikoan, Arduralaritzabide-Legeko Lehenengo Izenburuko Bigarren Atalburuan agintzen denari atxikiko zaio.

BALIOGABETZEZKO ERABAKIA

Soin-Hezkuntzarako Euskal Erakundea sortaraztezko, uztailaren 22ko 170/1986 Dekretua baliogabetuta geratzen da.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*– Lege hau osabideratzeko eta egiteratzeko beharrezko izan daitezen araudi-bidezko manuak Kultura eta Turismo-Sailburuaren saloz emateko baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari.

*Bigarrena.*– Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin egunaren biharamonetik jarriko da indarrean.

TITULO III.
MEDIOS ECONOMICOS

*Artículo 11.*– Constituyen recursos económicos del Instituto Vasco de Educación Física:

– Los fondos que se le asignen en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma Vasca.

– Derechos de matrícula, expedición de títulos, diplomas, certificados y demás derechos por prestación de servicios.

– Los bienes y valores que constituyan su patrimonio.

– Los productos y rentas de dichos bienes.

– Los ingresos que puedan producir las actividades del Instituto en el ámbito de su competencia.

– Las dotaciones económicas que las Diputaciones Forales, Ayuntamientos u otras Entidades públicas o particulares puedan acordar.

– Las subvenciones que legalmente le sean concedidas.

– Los donativos de cualquier tipo que reciba y también las herencias, los legados y los premios que le sean concedidos.

DISPOSICION ADICIONAL PRIMERA

El Gobierno Vasco promoverá la adscripción del Instituto Vasco de Educación Física a la Universidad del País Vasco.

DISPOSICION ADICIONAL SEGUNDA

El Gobierno, en el momento de la adscripción del Instituto Vasco de Educación Física a la Universidad, cumplirá con los requisitos de todo tipo que queden estipulados en el convenio a firmar con dicha Universidad.

DISPOSICION ADICIONAL TERCERA

En tanto no se apruebe el Reglamento de Régimen interno del Patronato Rector, éste se ajustará, en cuanto a su funcionamiento y adopción de acuerdos, a lo establecido en el Capítulo Segundo del Título Primero de la Ley de Procedimiento Administrativo.

DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 170/1986 de 22 de julio, por el que se crea el Instituto Vasco de Educación Física.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se autoriza al Gobierno Vasco a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo, para dictar las disposiciones reglamentarias necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Ley.

*Segunda.*– La presente Ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.